



## GAZTEENTZAKO ENPLEGU PLANA, 2024. PROIEKTUAREN FITXA

<b>PROIEKTUAREN IZENA</b>	<b>Eremu degradatu izendatutako auzoak berroneratzeko birgaitze sakoneko irtenbideen azterketa sistematizatua</b>

### PROIEKTUAZ ARDURATZEN DEN SAILA/ZERBITZUA ETA/EDO ATALA

21 Zabalgunea

### PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

21 Zabalgunea hirigintza sozietatea Gasteizko Udalak eraturako birgaitze eta lurzoru sozietate bat da, eta haren helburu nagusia da Udalari laguntzea hiria birgaitzen, berroneratzen eta berritzen, baita hedapen- eta berroneratze-eremuen plangintza gauzatzen ere, udalerriko hirigintza- eta ingurumen-antolamenduarekin bat etorritz.

Gaur egun, udal sozietateak ardatz estrategiko hauen esparruan garatzen ditu bere jarduerak:

1. Etxebizitzak birgaitzea eta hiri-berroneratzea hiriko eremu finkatuetan.
2. Kolektibo zaugarrien inklusioa lehenesten duten gizarte-ekintzak garatzea.
3. AGREE proiektu europarrean parte hartu du, Basauriko eta Donostiako sozietateekin batera, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Saila buru dela, 1940-1980 bitartean eraikitako higiezinaren jabe diren jabekideen erkidegoak mobilizatzeko, Adurtzan eta San Kristobalen birgaitze-obra kontratatze beharrezkoa den erabaki informatua har zezaten, bai energia-efizientziari dagokionez, bai irisgarritasun unibertsalari dagokionez. Proiektu horretan, kostu guztiak sistematizatu ziren, irisgarritasuna eta energia-efizientzia hobetzeko bi ekintza nagusien datu teknikoak eta ekonomikoak jasotzen zituzten fitxen bidez.
4. 2022ko Enplegu Planaz baliatuz, sistematika hori eremu degradatu izendatutako 9 auzoetatik 6tara hedatu zen, Arana auzoa kenduta.



5. 2022ko abenduaz geroztik, 21 Zabalgunea Zaramaga proiektua lantzen ari da. Gasteizko Zaramaga auzoko eremu degradatuan dauden bizitegi-erakinen birgaitze sakonerako laguntza ekonomikoen programa da (EITa zuzentzea, bizigarritasuna, irisgarritasuna, energia-efizientzia, eraikinaren instalazio orokorrak araudira egokitzea, amiantoa kentzea eta monitorizazioa), eta 2022-2024 aldirako Inbertsio Estrategikoen Erakundearteko Planaren (IEEP) barruan dago. Proiektu horretan hobetu egin da aurretiko sistematizazioa, eta, beraz, birgaitze sakonak dakartzan kontzeptu guztiak sartu dira.

Horregatik, informazio zabala eta berria dugunez, sistematizazio bera aplikatu nahi da, beste auzo batzuetan (Adurtza eta San Kristobal, Abetxuku, Ariznabarra, Koroatzea, Angloa, Judimendi eta Zaramagan falta diren eraikinak) antzeko erantzuna emateko. Arana auzoaren kasuan, landa-lana egin beharko litzateke aldeztu aurretik. Helburua da eraikin bakoitzeko fitxa xehatua edukitzea, sozietateak jabeakide erkidegoengana benetako informazioa duela jotzerik izan dezan, haien eraikinak sakon birgaitu ahal izateko erabakiak hartzen laguntzeko.

Lanen bidez helburu hauek lortu nahi dira: eraikitako parkea birgaitzeko merkatua sustatzea, behar diren obrak aktibatuz eta mobilizatuz; energia-efizientzia handitzea; eraikinaren irisgarritasuna hobetzea (irisgarritasun unibertsalera heltzen saiatuz), eta ingurumen-onura garrantzitsuak lortzea, hala nola urteko CO<sub>2</sub> baliokidea murriztea hirian, hori guztia Gasteiz Hiri Adimendun eta Klimatikoki Neutroen Europako Misioaren barruan dagoela kontuan izanik.

## PROIEKTUAREN IDENTIFIKAZIOA

---

### 1. Helburuak

---

#### 1.1.Orokorrak:

Eraikinek behar dituzten birgaitze sakoneko jarduketan fitxa baloratuak izatea, AGREE eta Zaramaga proiektuetan landutako sistematizazioa eta metodologia aplikatuz, gizarte- eta hirigintza-azterlanak egin eta eremu degradatu izendatu dituzten auzoetan (Adurtza eta San Kristobal auzoak, Abetxuku, Koroatzea, Ariznabarra, Arana, Angloa, Judimendi, eta Zaramagako eraikinaren zati bat).

#### 1.2.Espezifikoak:



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

#### Arana auzoan:

- Eraikinen birgaitze sakonari dagokionez, landa-lana egitea eta egoera aztertzea.
- Arana auzoko higiezinak sakon birgaitzeko beharrezkoak diren esku-hartzeak identifikatzea.

#### Auzo guztietan:

- Higiezin bakoitzerako fitxa xehatuak betetzea, birgaitze sakonari buruzko atalak betez.